

## 5. Zerbitzuak

Zerbitzuen kasuan negozioa ez da produktu bat saltzea, baizik eta langile baten ezagutza edo eskulana. Orokorrean gizonak agertzen dira eta negozio gehienak herriaren erdigunean egon dira. Zerbituz mota asko zeuden arren, batzuk aipatuko dira hemen.



- **Elektrikariak**

XX. mendean zehar elektrizitatea hedatzen joan zen herrian eta 1970. hamarkadan, jada, elektrikari asko zeuden herrian. Guztiak gizonkoak ziren. Hori bai, elektrikariak etxez-etxe ibiltzen ziren bitartean, emakumeak dendan egoten ziren produktu berriak saltzen (telefonoak, telebistak, etxerako gailuak...) edota kontuak eramaten.



- **Garraiobidea: trena, diarixua eta bizikleta alkilerrak**

Oñatiko trena 1919an inauguratu zen eta 1967ra arte egon zen martxan. Horrek Oñati San Prudentziorekin lotzen zuen eta behin San Prudentziora iritsita errezagoa zen Bergarara, Gasteizera... joatea.

Honez gain, urte luzez diarixuak erabili ziren garraiobide moduan: gurdi bat zen hiru zaldik bultzatzen zutena. Gurdi horretan hamar lagun sartzen ziren.

Arantzazu eta Araotzekoak diarixuan jaisten ziren herrira. Zubillagakoak, aldiz, trenez edo autobusez.

Bizikletak ere jasi ziren agertzen. Baina hasieran alokatu egiten ziren soilik, eta lanera joateko erabiltzen ziren eta batzuetan jolasteko. Apurka-apurka jendea erosten hasi zen eta alkilerraren zerbitzua salmenta bihurtu zen.

Garraioak zabaltzea garrantzitsua izan zen emakume auzotarren bizitzetan, modu honetan, nolabait esateko, libreagoak ziren leku batetik bestera mugitzeko.

1980tik aurrera autoa hedatu zen eta horrek leku batetik bestera joateko aukerak zabaltu ditu.



## • Estanko eta paper-dendak

Egunkariak, liburuak eta aldizkariak saltzen ziren hemen: 1940an Estanku zaharrea (Plaza, 10) eta Altunan. Ondoren Ibarrendon (Plaza, 9) eta Irizarren (Plaza, 5).

Negoioen jabeak gizonak izan ziren arren, dendako lana emakumeek egiten zuten. 1980tik aurrera, berriz, estanko guztiak emakumeen jabetzara pasa ziren: Maria Cristina Ibarrendo Oleaga, Concepcion Ugarte Aguirre (Estanku zahar), Pilar Altuna Iturburu eta Gloria Irizar Zumalde. Hauek lehengo jabeen alabak ziren.

Gaur egun ere horietako batzuen alabek jarraitzen dute.



## • Bizartegi edo ile-apaindegiak

Oñatin bizargin asko egon dira mende hasieratik. Guztiak gizonak ziren eta bizartegiak denbora askoan gizonen topagune ere izaten zen. Jendeak berriketa egiteko eta lagunekin egoteko ere aprobetxatzen zuen.

Bizartegiko edo ile-apaindegiko ofizioa gurasoengandik seme-alabengana pasatu da askotan. Oñatiko ile-apaindegi batzuetan 2-3 belaunaldik egin dute lan, adibidez: Ugarte, Sesiñena edo Ion.

Hasieran bizarginek bizarra eta ilea ere mozten zuten, baina gizonei bakarrik hasiera baiten. Gizonezkoak sarri joaten ziren eta gainera, oso koketoak omen ziren.

Emakumeek oraindik ez zuten ohiturarik ilea apaintzeko, batez ere, diru propiorik ez zutelako. Hala ere, 1930ean emakumeentzako lehenengo ile-apaintzailea agertu zen: Josegina Balzategi Ziriostegi (Moyua 28). Beranduago beste batzuk ireki ziren.

Baina 15-20 urte beranduago emakumeak hasiko dira etxetik kanpora lan egiten eta diru propioa irabazten hasiko dira. Orduan itxurari ere garrantzi handia ematen hasiko dira. Eta orduan gero eta ile-apaintzaile gehiago egongo dira eta bizargin gutxiago.



- **Farmaziak**

Farmaziek lizentzia behar zuten ez dira asko egon. 1970 urtera arte bi zeuden erdigunean. Gero, hiru. 1990. hamarkadan San Lorentzon ireki zen laugarrena. Farmazeutiko guztiak gizonezkoak ziren lehen, baina geroago emakumeek goi-mailako ikasketak egiteko aukerarekin batera, farmazien jabetza emakumeena izatera pasa da azken urteetan: lautik hiru.

Bestalde, optika, logopedia, podologia zentro, fisioterapia zentro, nutrizio-zentro eta hartz klinika gehiago daude eta guztiak emakumeen eskutik.





- **Aisialdirako zerbitzuak: zinea, bideo-kluba, jolaslekua, bidaia-agentziak...**

Urte luzez zinema izan zen zerbitzurik garrantzitsuena eta bakarra. 1970etik aurrera jolas-tokiak sortu ziren.

Gero, 1990etik aurrera oporretan kanpora joateko ohitura handiago egin zen eta bidaia-agentzia asko ipini ziren.

Honez gain, bideoklubak, pelikulak alokatzeko, eta ziber-mitzalekuak, urruneko jendeaz hitz egiteko, ere egon dira Oñatin. Internetaren eraginez biak galdu dira. Lehen bideokluba Mercedes Garin Goitiak zabaldu zuen eta ziber-mintzalekua Consuelo Torres Romero ekintzaile kubatarrak.

